

Naziotasuna bera ukatzen

Euskaldunon Egunkaria, 1996-01-28: 3.

Sabin Arana Goiriren aurkitze nagusia: "Euskadi da euskotarren aberria" dagoeneko egia argia zenaren zehazpen jeniala izan zen, eta geroztik sentipen honen defentsan euskotar askok eman du kontzientzi honekin bizia. Halere, ezer pasa ez balitz bezala aurrean ditu oraindik zutik jaiotzen herriak berrotan zentralista interesatuak. Hau etorri zait gogora orain prentsan aurkitu ditudan bi esaldi hauek irakurtzen: Ramon Jauregirena: "Gure herrian autonomiatik harantzako euskal erreferentziak 'cháchara', ergelkeria, besterik ez dira", eta Javier Rojok: "Presoen inguruan herri honetan egin den politika oso positiboa izan da, demostratu egin beharko didate kontrakoa komenigarri dela". Biak Espainia kolonialean bizitako nostalgia zaharra erakusten dute, eta gaur demokraziaren ikuskari ustelaren lotsa jazaten ari den sozialismoak ezin gaitu Bolivar askatzailearen herri askatuetan bizitzea suertatu zaigun herritarrei zaharki hau bota: Jauregiri edozein krioilok erantzungo lioke grazia handiz: "más cháchara será usted!", ez du besterik merezi, eta Rojori: "Noiztik nahasten duk 'komenigarriagoa' 'justuagoa' rekin?!"